


NAFARROAKO KULTURA, SORMEN ETA ARTE PROPOSAMENEN ERREGISTROAN INSKRIBATZEKO BETEKIZUNAK

ARTE, KULTURA ETA SORMEN PROPOSAMENEN ERREGISTROAREN EGUNERATZEA

948 Merkatua, Nafarroako Arteen Merkatua

PARTAIDETZA-PROZESUAK

1. ZINEMA ETA TELEBISTA
2. ARTE ESZENIKOAK
3. DISCO, LIBURU ETA BESTE EUSKARRIEN ARGITALPENA
4. MUSIKAK.
5. ARTE PLASTIKO ETA IKUSIZKOAK
6. BESTE INDUSTRIA KULTURAL, SORMENEZKO ETA DIGITAL BATZUK (DISEINU-FOKUA).



948
MERKATUA

21.22.23 NOV. AZA. 2018

PAMPLONA/IRUÑA/PAMPOLUNE
NAVARRA/NAFARROA/NAVARRRE

SAVE THE DATE

 PARTICIPA/PARTE HARTU
948MERKATUA.COM



Nafarroako Gobernua
Kultura, Kirol eta
Gazteria Departamentua



Gobierno de Navarra
Departamento de Cultura,
Deporte y Juventud

ARTE, KULTURA ETA SORMEN PROPOSAMENEN ERREGISTROAREN EGUNERATZEA

Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea Erakundeak Nafarroako Arte, Kultura eta Sormen Proposamenen Erregistroa abiarazi nahi du eta dei egiten die nafar artista profesionaleri hartan inskribatzera, hainbat sektoretako azoketan parte hartu ahal izan dezaten. Erregistratzeko epea 2018ko maiatzaren 14tik 30era zabalduko da.

Erregistroko datu-baseak 948 Merkatua, Nafarroako Arteen Merkatuan programatuko diren proposamenak hautatzeko ere balioko du. Merkatu horren bigarren edizioa 2018ko azaroaren 21ean, 22an eta 23an egingo da, Iruñean (Nafarroa).

948 Merkatua, Nafarroako Arteen Merkatua

948 Merkatua, Nafarroako Arteen Merkatuaren bigarren edizioa 2018ko azaroaren 21ean, 22an eta 23an egingo da, Iruñean (Nafarroa).

Azoken azoka da 948 Merkatua, Nafarroako Arteen Merkatua, diziplina hauek ardatz dituen: arte plastikoak, arte eszenikoak, musikak, liburu eta diskoen edizioa, zinea, diseinu-fokua eta bestelako industria kultural eta sormenezkoak.

Goizetan, Baluarte PRO egingo da, profesionalen arteko topaketa; hainbat stand izango ditu, eta hitzaldiak eta aurkezpenak egingo dira.

Arratsaldeetan, aldiz, arte-erakustaldiak egingo dira: arte eszenikoak, musikak, arte plastikoak, liburu eta diskoen edizioa, eta zinea; formatu desberdinetan eskainiko dira: kontzertuak, ikuskaldiak, aurkezpen artistikoa...

PARTAIDETZA-PROZESUAK

1.- Azokan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute; horretarako, bere proposamenaren diziplina artistikoari dagokion izen-emate formularioa bete beharko dute culturana Navarra.com webgunean. Bukatutakoan, mezu elektronikoa jaso dute, behar bezala izena eman dutela jakinaraziko duena.

2.- Erregistratutako proposamen bakoitzak 948 Merkatua, Nafarroako Arteen Merkatuan azokak dirauen hiru egunetan sartzeko bi akreditazio jasoko ditu.

3.- Jasotako proposamen artistiko guztiak batzorde ebaluatzaileak ebaluatu eta zeintzuk erakutsiko diren 948 Merkatua, Nafarroako Arteen Merkatuan hautatuko ditu. Diziplina bakoitzean aditu diren hainbat pertsonak osatuko dute, eta nork bere diziplinaren proposamenak aztertuko ditu. Hautatutako proposamenak batzorde orokor batek onetsiko ditu gero; batzorde guztietan parte hartuko dutenek osatuko dute batzordea.



4.- Proposamenak hautatutakoan, 948 Merkatua, Nafarroako Arteen Merkatuaren antolakuntza proposamenaren pertsona arduradunekin harremanetan jarri eta beharrezko informazio guztia emango die. Bukatzeko, programazio artistikoa definituko du.

5.- ARTE-ERAKUSTALDIEN EKOIZPENARI LAGUNTZEKO POLTSA

Hautatutako proposamenak erakutsiko dituzten konpainia, talde eta/edo profesionalak laguntza-poltsa bana jasoko dute ekoizpen-gastuen ordainez. Zenbateko hauek jasoko dituzte, zehazki:

Zinema eta telebista

- 150 € BEZa barne

Arte eszenikoak

- Konpainia bakoitzarekin definituko da laguntza-poltsa, erakutsitako lanari dagokionez.

Musikak

- Kide bat eta hiru bitarte izanez gero - 200 € BEZa barne
- Lau kideetik gora izanez gero - 400 € BEZa barne

Arte plastiko eta ikusizkoak

- 250 € BEZa barne

Laguntza-poltsaren zenbatekoa jaso ahal izateko, faktura aurkeztu beharko da, Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuari zuzendutakoa. Faktura-eredua jarriko da eskura.

6.- Erakustaldietan, formatua edozein dela, parte hartuko dutenen ardura, ez beste inorena, izango da beharrezko lege-baldintzak betetzea.



1. ZINEMA ETA TELEBISTA – LAN BUKATUA & PROIEKTUA

Nafarroako ikus-entzunezko sektorea maila profesionalean sustatzea du helburu atalak. Alor horretako eskaintza kultural profesionala bultzatu eta Nafarroako zein beste lurralde batzuetako eragile kulturalen agendan txertatu nahi du.

Azken hiru urteetan amaitutako fikzio, dokumental edo animazioko ikus-entzunezko lanak (metraje luzeko zein laburreko filmak) eta/edo telesailak erregistratuko dira. Hautatutako profesionalen eta banatzaile, telebista-programatzaile eta zine-jaialdien arteko aurkezpen eta topaketak erraztuko dira.

Nori zuzendua: azken hiru urteetan ikus-entzunezko lan eta/edo telesailen bat amaitu edo horretarako proiekturen bat duten ikus-entzunezko sektoreko profesional edo enpresa nafarrei.



“Lan bukatua” modalitatean erregistratzeko dokumentazio espezifikoak

1. Epean inskribatzea, “Lan bukatua” modalitateko formulario espezifikoaren arabera.
2. Produzio-etxe edo sormen-taldearen curriculum vitae.
3. Proiektua aurkezten duen pertsonaren curriculum vitae.
4. Egoitza fiskala Nafarroan duela ziurtagiria, inskripzioa aurkezteko epea hasi eta sei hilabete lehenagotik gutxienez.
5. Jarduera ekonomikoaren gaineko zergaren ziurtagiria, 2018. urtekoa, sektoreari dagokion epigrafearena.
6. Lan-bizitzaren agiria edo Langile Autonomoen Araubide Berezia azken hamazortzi hilabeteetan, inskripzioa aurkezteko epea hasi zenetik zenbatzen hasita, gutxienez seitan (ondo ondokoak izan beharrik gabe) alta emanda egon dela egiaztatzen duten banku-ordainagiriak.
7. Aurkeztutako lanaren laburpena (orrialde bat).
8. Lanaren trailerra.
9. Aurkeztutako lana ikusi ahal izateko esteka.
10. Sustapen-irudia edo kartela.
11. Intereseko informazio osagarria.




“Proiektua” modalitatean erregistratzeko dokumentazio espezifikoa

1. Epean inskribatzea, “Proiektua” modalitaterako formulario espezifikokoaren arabera.
2. Pertsona fisikoa bada, NAN edo Nafarroakoa dela edo inskripzioa aurkezteko epea hasi eta sei hilabete lehenagotik gutxienez Nafarroan errolatuta egon delako ziurtagiria.
3. Pertsona juridikoa bada, egoitza fiskala Nafarroan duelako ziurtagiria, inskripzioa aurkezteko epea hasi eta sei hilabete lehenagotik gutxienez.
4. Aurkeztu beharreko proiektuaren laburpena (orrialde bat).
5. Proiektua azaltzeko teaser edo ikus-entzunezko materiala.
6. Intereseko informazio osagarria.

2. ARTE ESZENIKOAK

Arte eszenikoak maila profesionalean sustatzea du helburu atalak: antzerkia, dantza eta zirkua. Alor horretako eskaintza kultural profesionala bultzatu eta Nafarroako zein beste lurralde batzuetako eragile kulturalen agendan txertatu nahi du.



2016, 2017 eta 2018an estreinatutako edo 948 Merkatua, Nafarroako Arteen Merkatuan estreinatu daitezkeen lanak erregistratuko dira. Jarduera osagarriak erraztuko dira, hala nola aurkezpenak, merkataritza-hitzorduak, eragileen arteko topaketak, standak eta abar.

Preskriptoreak formatu desberdinetako espazio eszenikoen programatzaileak izango dira: jaialdi-zuzendariak, erakundeak eta Nafarroako zein beste lurralde batzuetako banatzaileak, zeinei azokara joateko gonbitea luzatuko baitzaie.

Nori zuzendua: 2016, 2017 edo 2018an gutxienez ikuskizun bat estreinatu duten edo 948 Merkatua, Nafarroako Arteen Merkatuan estreinatuzeko moduan dauden arte eszenikoen

(antzerkia, dantza eta zirkua) profesionalei, baldin eta kostua bat badator haren kalitate tekniko eta artistikoarekin.

“ARTE ESZENIKOAK” modalitatean erregistratzeko dokumentazio espezifikoa

1. Epean inskribatzea, “ARTE ESZENIKOAK” modalitaterako formulario espezifikokoaren arabera.



2. 2016, 2017 edo 2018an gutxienez ikuskizun bat estreinatu dutela edo 948 Merkatua, Nafarroako Arteen Merkatuan estreinatze moduan daudela egiaztatzen duen dokumentazioa (programak, kontratuak, fakturak eta abar).

3. Lan osoaren bideoa ikusteko esteka.

4. Egoitza fiskala Nafarroan duelako ziurtagiria.

5. Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren ziurtagiria, 2018. urtekoa, sektoreari dagokion epigrafearena.

6. Lan-bizitzaren agiria edo Langile Autonomoen Araubide Berezian azken hamazortzi hilabeteetan, inskripzioa aurkezteko epea hasi zenetik zenbatzen hasita, gutxienez seitan (ondo ondokoak izan beharrik gabe) alta emanda egon dela egiaztatzen duten banku-ordainagiriak.

3. DISCO, LIBURU ETA BESTE EUSKARRIEN ARGITALPENA

Hauei guztiei laguntzea du helburu atalak: argitaratze-industriari (bai liburuena, bai diskoena), arte grafikoaren sektoreko enpresei, eta beren lan literario eta diskografikoak autoeditatu dituzten egile nafarrei.

Liburu, disko eta beste euskarri batzuen II. Azoka antolatuko da, non parte hartzeko gonbitea jasoko baitute Nafarroako argitaletxe, diskoetxe eta arte grafikoaren sektoreko enpresek, baita azken hiru urteetan beren lanak autoeditatu dituzten hainbat egile ere (azokan aurkeztuko dira lan horiek).

Nori zuzendua: argitaletxeei (bai liburuena, bai diskoena) eta arte grafikoaren sektoreko enpresei (parte hartzeko gonbitea jasoko dute), baita azken hiru urteetan lan literario edo diskografiko propioen bat autoeditatu duten egile nafarrei.



“AUTOEDIZIOA” modalitatean erregistratzeko dokumentazio espezifikoa

1. Epean inskribatzea, formularioaren arabera.

2. Nafarroakoa dela egiaztatzen duen NAN edo inskripzioa aurkezteko epea hasi eta sei hilabete lehenagotik gutxienez Nafarroan erroldatuta egon delako ziurtagiria.

3. 2016, 2017 edo 2018an editatutako lanaren lege-gordailua egiaztatzen duen dokumentazioa.




4. MUSIKAK

Zuzeneko kontzertuak eman eta kontratatzeke moduan egon ohi diren bakarlari eta musika-talde nafarren sustapen profesionala bultzatzea du helburu.

Bakarlari eta musika-talde nafarrak erregistratuko dira, zeinak Nafarroako zein beste lurralde batzuetako programatzaileei eta musika-jaialdiei aurkeztuko baitzaizkie.

Nori zuzendua: zuzeneko kontzertuak eman eta kontratatzeke moduan egon ohi diren bakarlari eta/edo musika-talde nafarrak.



“MUSIKAK” modalitatean erregistratzeko dokumentazio espezifikoa

1. Epean inskribatzea, formularioaren arabera.
2. Nafarroakoa dela edo gutxienez sei hilabetez, inskripzioa aurkezteko epea hasi zenetik zenbatzen hasita, Nafarroan erroldatuta egon dela egiaztatzen duen ziurtagiria.
3. Azken 12 hilabeteetan, inskripzioa aurkezteko epea hasi zenetik zenbatzen hasita, gutxienez bost kontzertu eman dituela egiaztatzen duen dokumentazioa.

5. ARTE PLASTIKO ETA IKUSIZKOAK

Atalak artista plastiko eta ikusizkoen zein eragile preskriptoreen (galeristak, komisarioak, bildumagileak eta museoei zein arte-zentzoei lotutako profesionalak) arteko topaketa erraztea du helburu. Hautatutako artistek, aurkeztutako dokumentazioaren eta curriculum profesionalaren arabera, 948 Merkatua, Nafarroako Arteen Merkatura gonbidatutako preskriptore guztiei aurkeztu ahalko dizkiete beren sormen-proiektuak.



Lanak ikustea: hautatutako artistek beren sormen-lanak aurkeztu ahalko dizkiete azokara joango diren preskriptore eta kultura-eragileei. Artista bakoitzak erakustoki txiki bat (mahai bat eta atzeko horma, lau metro lineal guztira) izango du, non bere lan artistikoaren inguruko elementuak (grafikoak, ikusizkoak edo proiektatuak) jarri ahalko baititu.

Ekitaldia egongo den eremuan barna kokatuko dira erakustokiak.

Ekintza- eta bisita-programa osagarria eskainiko du antolakuntzak, eta hautatutako artistek haietan parte hartu ahalko dute.

Batzorde ebaluatzaileak aukeratuko ditu 948 Merkatua, Nafarroako Arteen Merkatuaren bigarren edizioan parte hartuko duten artista plastikoak; arte plastiko eta ikusizkoetan hainbat adituk osatuko dute batzordea.

Azokaren lehen edizioan parte hartu zuten artistak bigarren ediziora ere aurkeztu ahalko badira ere, lan eta proiektu artistiko berriekin betiere, artista berriei emango zaie lehentasuna.

Nori zuzendua: sormen-jarduera arte plastiko eta ikusizkoen alorrean (pintura, eskultura, marrazketa, teknologia berriak, bideo-sormena, prozedura mistoak edo arte plastikoen edozein modalitate) egiten duten Nafarroako edo Nafarroan erroldatutako artista indibidual edo artista-kolektiboei.

“ARTE PLASTIKOAK” modalitatean erregistratzeko dokumentazio espezifikoa

1. Epean inskribatzea.
2. Nafarroakoa dela egiaztatzen duen NAN edo inskripzioa aurkezteko epea hasi eta sei hilabete lehenagotik gutxienez Nafarroan erroldatuta egon delako ziurtagiria.
3. Artista edo kolektiboaren curriculum vitae, ondokoak zehaztuta: egindako erakusketa-jarduera eta espazio publiko, museo, arte-zentro edo argitaratze-euskarrian egindako arte garaikideko proiektuak.
4. Azken hiru urteetan garatutako hiru arte-proiektu garrantzitsu azaltzeko dokumentazioa (PDF formatuan) aurkeztu beharko da, baita aurkeztu nahi dituen proiektu eta lanena ere.

6. BESTE INDUSTRIA KULTURAL, SORMENEZKO ETA DIGITAL BATZUK

6.1. DISEINU-FOKUA

Diseinu digitalean (grafikoa, web, multimedia, 3D, bideojokoak, animazioa, app-en diseinua, etab.) zein ehun-diseinuan eta modan (goi-mailako joskintza, joskintza, ehungintza eta puntu-lanak, osagarriak, bitxigintza eta imitaziozko bitxigintza, etab.) lan egiten duten profesional eta enpresa nafarren sustapen profesionala bultzatzea du helburu atalak.

6.2. BESTE INDUSTRIA BATZUK

Ondoko industria kultural, sormenezko edo digitaletakoren batean lan egiten duten profesional eta enpresa nafarren sustapen profesionala bultzatzea du helburu atalak:



arkitektura (bioklimatikoa, jasangarria, organikoa, hirigintza, etab.), argazkigintza eta bideogintza, performancea, ilustrazioa eta abar.

948 Merkatua, Nafarroako Arteen Merkatuak espazio bat proposatuko du enpresek proposamenak aurkez ditzaten; horretarako, standak jarriko dira eta/edo aurkezpenak egingo dira azokako eremu profesionalean kokatutako eszenatoki batean.

Nori zuzendua: aipatutako alorretan produktu, zerbitzu eta/edo proiektuak garatzen ari diren profesional edo enpresa nafarrei.

**“BESTE INDUSTRIA KULTURAL, SORMENEZKO ETA DIGITAL BATZUK” modalitatean
erregistratzeko dokumentazio espezifiko**

1. Epean inskribatzea, formularioaren arabera.
2. Egoitza fiskala Nafarroan duelako ziurtagiria.
3. Jarduera ekonomikoen gaineko zergan alta emanda dagoelako ziurtagiria, 2018. urtekoa, sektoreari dagokion epigrafearena.

